


# Emakume migratuen arreta integralerako zenbait orientabide genero-ikuspegi interseksionaletik

**Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Batzordearen** ekimenez, orientabide multzo hau eskaintzen zaigu **Migrazio eta Asiloaren Euskal Forotik**. Helburua da emakume migratuek bermatua izan dezaten egiazko berdintasunerako eskubidea bizitzako alor guztietan.

Proposamenak bere egiten du genero-ikuspegi interseksionala, bai baitakigu zenbaitetan **emakume migratuak mota desberdinetako diskriminazioen biktima direla une berean**.

Asistentzialismoa atzera utzita, ikuspegi interseksionalak **ahalduntzea, autonomia eta parte-hartze aktiboa** sustatzen ditu emakumeek beren bizitzaz erabakitzean.



Informazio  
gehiago

## Arretarako zeharkako printzipioak



### Eskubideen ikuskera bat eta Ahalduntzea

**Emakumeek beren eskubideak ahaldundurik** eskuratzen eta gauzatzen dituztela bermatzea, bai beraiek bai besteok emakumearen subjektu-izaeraz jabetu gaitzen.



### Langileen prestakuntza

**Prestakuntza jarraitua eta eguneratua** bermatzea berdintasunaz, kulturartekotasunaz eta interseksionalitateaz.



### Segurtasun-giroa

**Konfiantzako inguruneak** sortzea, emakumeak babesturik, entzunik eta ez-diskriminaturik senti daitezten. **Konfidentzialtasuna ziurtatzea.**



### Hizkera inklusiboa

Hitzezko **nahiz ikusizko hizkera ez-estereotipatua erabiltzea**, aniztasunaren alde eginez.



### Jarrerak

Kultura-aniztasunerako irekitasuna, **enpatia eta entzute aktiboa sustatzea**, emakume migratuekiko aurreiritziak eta estereotipoak baztertuz eta duintasunezko, errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko tratua bermatuz.

## Esku-hartze eremuak



### Osasun integrala

Osasunaren alderdi guztiei erreparatzea: **fisikoa, sexuala, ugalketarena, emozionala eta mentala.**



### Informazioa, orientazioa eta esku-hartzea

Emakume migratuentzako akonpainamendua **errespetuz eskaintzea**, beraien jakintza eta baliabide propioak balioetsiz. **Arretaren eskuragarritasuna bermatze aldera**, litezkeen hizkuntza- eta kultura-oztopoak desagerrarazteko tresnak baliatzea (bitartekaritza, itzulpena, hizkera argia), emakumeen esku-hartze aktibo eta autonomia bultzatuz erabakiak hartzerakoan. Haien denborak, testuinguruak eta gaitasunak **aintzat hartzea.**



### Enplegua eta lan-orientabidea

**Enplegu duina bermatzea**, alor feminizatu eta prekarioetara daraman etnoestratifikazioa gainditzeko.



### Indarkeria matxistak

Prebentziorako programak eta baliabideak garatzea. **Arreta espezializatua eta babes eraginkorra bermatzea.**



### Ebaluazio parte-hartzailea

Emakume migratuen parte-hartze erreala eta protagonismoa bermatzea politika publikoetako programak, **zerbitzuak eta prozesuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko unean.**